


L A T X A G A

ARALAR'KO
SAN MIGEL

ARALAR'KO SAN MIGEL



Autor; José M.º San Sebastián (LATXAGAI) Edita: EDILI - San Sebastián
Imprime: Gráficas ESET - Seminario Vitoria Depósito Legal VI 304-1973
I. S. B. N. 84-300-5798-6

*J*usto Azkue ta Joakin Rodrigo
adiskide miñeri
biotzez eta eskertsu, opa diet lantxo au,
San Migel'ko gure lenengo ibillaldi
zoragarriaren oroigarri bezela.



Bildur naiz bat edo batek, liburutxo polit au bere eskutan ikustean, irrimurtzi batekin esan dezan bere kolkorako:

—To! Aralar'ko Aingeruaz beste liburu bat? Gaurko egunean olakorik! —

Nik, ordea, oso pozik eta gogoz artu nuen berria, Latxaga maiteak olako bat argitaratzekotan zebillela esan zidanean.

Euskalerrian eta oraintsu arte euskaldun izan diran lurraldetan, biotzaren barnemuñetaraiño sarturik daude, errixumean bereziki, Aralar'ko Aingeruarenganako jaiera ta joera. Ni ere errixumetarra izaki (barkatu, irakurle, nitaz eta neretaz jardukitzen banatzaizu), eta erriaren biotzkuntza au bene-benetako zer-gauza deritzat, bai euskerari bai batez ere Jainkozaletasunari buruz.

Izan ere, nere ama maiteak San Migel'en egalpean, Sakana zoragarriko erri polit batean, ekarri ninduan mundura. Egia esan, etzidan euskerarik irakatsi. Ez diot errurik egozten, gaixoa!, bera ere, naiz euskaldun jaioa, Kastilla barne-barnean azia ta ezia baitzan. Medina del Campo'n ain xuxen. Eznuen, beraz, amaren bularretik euskera xurgatu, bai, ordea, San Migel'en ezagutza ta mai-tasuna.

Zazpi zortzi urteko mutiko koxkorra izango nintzan Aralar'ko San Migel'era lenbiziko aldiri izorero nintzanean. Nolako biotz zirrarak iñarrosi nindun, mendi tontorrean eliza illun zaar au ikusi nuelarik! Bat-batean burura zitzaizkidan Teodosio Goñi'koa kateak arrastakan; erensubea agotik eta sudurzulotatikugarra zeriola; Aingerua argi dirdiraz jantzirik, gurutzea goiburu; onaren eta txarraren izpirituak elkarrekin borrokan, laino dantzariak inguru; Jainkoaren aunditasuna bera. Eta esan ezin alako bildur, edo itzal, edo nik dakita zerk, zapaldurik utzi nindun, aundiaren aundiz.

Amaika urtekoa nintzala, berriz, uda oso bat egin nuen San Migel'en meza laguntzalle. Emengo orduko giroak on aundi-aundia egin zidan, bai nere Jainkozaletasunean, bai nere euskalzaletasunean, etxeko guziak (Fakundo morroia ta ni ezik) euskaldun jator-jatorrak bai ziran.

Nola aztu orduko apez ooragarri aiek? Don Jabier, Ministroa, zimela, zaintsua, adiñekoa izanik ere, erbia bezain ernea, sumandilla baño biziagoa, ipurterre xamarra baño, biotz aundikoa. Onpuska bat! Ori bai, iñoiz iñun Jainkoaren legearen kontrako zertxobait sumatzen balinbazuen, antxe zan odol irakitan, zirt eta zart moztu bearrez. Infernuko auspoa (kordiona) bide zuen etsairik aundiena.

Oso bestelakoa Don Markos, laguntzaillea: gizon mardula, patxara aundikoa, argia, atsegiña, dena biotz. Iñoiz ipurterrekeririk sotzen bazan, antxe zegoen berau ere ezkerrez edo eskubiz mokerkeriak eztitu naiean.

Ta zer esan orduko neskame-morro i aietaz?

Ez oso ikasiak, zenbait erderaz tutik ez zekitenak, bai ordea maratzak eta langilleak, apalak eta esanekoak, eta (esan bearrik ez) barnebarretik Jainkozaleak. Etzan noski faltako astean ostirala, baño geienean elkartasun eta pakezko giro atsegin batean murgildurik bizitzen giñan, zeru txiki batean bezala.

Andik Seminariora.

Nork esan bear zidan neri orduan, urte mor-doska baten buruan ni izango nintzala emengo Ministroa?

Zenbat gertaera arrezkero! Anaiarteko gerrate negargarria, bere ondorio txar guziakin; ostatu eder ura erre ta suntsitu zuen su ikaragarria; apezak eta morroiak ere usuegi aldatuak izan ziran, erdaldunakin naste: eta jokabide onek euskeraren baztartzea ekarri zuen berarekin. Don Anjel Galarza euskaldun apez gazteari esker, ez gan galdu erabat gure izkuntza San Migel'en.

Joan daneko ogei ta zazpi urte ontan nik daramakit emengo gorabera. Epe luzea. Luzeegia jendeari ongi etorri eta abegi egin nai ta, egokierarik eta tokirik ezean, ezin egin izan zaionean. Jainkoari eskerrak, aurki ostatu berriari buru emanen diote ta orduan besterik izango al da.

Bitarte luze ontan gauza bat argi ikusi eta ziñez egiztatu dut: Euskalerrriak San Migel Aingeruarenganako jaiera ta joera barne muiñetaraiño sarturik daramazkila. Or daude aitortzat igandero, eta uda-aldean egunoro, etorri oi diran jendeak, askotan eliza mukuru bete artio. Or, batez ere, Aingeruak urteoro erriz-erri egiten duen ibilaldia. Ikustekoa da erriak Aingeruari erakusten dion maitasuna ta leia. Nolako pozarekin egiten

dion diasala ta ongi-etorria! Nolako beroarekin otoitz! Zeiñen amultsuki musu ematen dion! Zeiñen maiteki agurtzen! Zein gogotik abesten dioten zaarrak eta gazteak, emakumeak eta gizonezkoak, aurrak eta agureak! Nolako garra kantuetan, bai beren mabilezko latíñean: "Saantee Mikael, oora pro noobis!" bai euskera goxo jatorrean: "MIKEL GUREA, ZAIZU EUSKALERRIA!".

Erriaren biotzkuntza oni eusteko ta berau gure artean atxikitzeko ta bizkortzeko egiñalak egi-tea, egin dezakegun lanbiderik ederrena deritzat, bai euskerari begiz, bai Jainkozaletasunari dagokionez.

Eta bi arlo oietan, Latxaga'ren liburutxo polit au bezelakorik deus ez.

Eskutan daukazu, euskaldun adixkide!

Irakur eta ikas!

AYERBE INOZENZIO.

*Aralar'ko San Migel Euskalerriko
ama sabela*



Euskalerrarentzat garrantzi aundiko tokia degu Aralar'ko San Migel. Aspaldítik millaka urte dirala, ementxe bizi zan gure asaba zarra euskeraz mintzatzen zala. Izenak, itzak, esaerak, izkuntza, emengo larretan zebilela sortua degu. Emen bizi zan eta bere kultura zarra emen sortua da. Aspaldiko garaiko oroitarriak nun emen aiña?

Moruen garai txar aietan emen zeukan toki

aberatsa, baita babesa ere bear bezela eskutatzeko. Orduan sarmko zan kristau sinismena ta San Migel'en gurtza.

Onera etorri da geroztik Euskalerrria, gure Aingeruari bere asmoak, naigabeak eta kezkek agertzerá. Aingeruaren inguruan bildu oi da Euskal jendea ta ortik asita sorm zaigu gure erriaren koziéntzia. Bere nortasuna berexiaren oiñarria bezela, San Migel aukeratu du. Euskaldunak bere erritasuna ta bere sinismena ementxe zuzperten ditu. Orrengatik azaltzen zaigu mendi au bere esan-nai guztiakin gure kulmraren iturria ta bi ziaren odola bezela. Euskalerrriaren AMA SABELA da.

Orrelako bereixtasuna arkituta, miña ematen zidan ikusteak, aspaldi ontan etzegola San Migel' eri buruz ezer idatzirik euskeraz. Liburuxka onek utsune ori bete nai du. Erriarentzat egiña dago ta erri soillarentzat. Alegiñak egin ditugu, gaia ez agortua uzteko edo geiegi sakondu gabe, alderdi jakin bearrezko batzuek agermaz baizik. Batzuetan aurregi joango gera, baiñan agertzen degu nundik nora goazen, mugak, utsunea eta illun danak garbi azalduaz. Emen billatuko du euskaldunak elizaren asiera, irudiaren esan-naia, edestia, udaberriko ibillaldia, Orixe'ren espiritualidadea, gaurko egunean bear lukena izan eta, nola ez? kanta zar batzuek.

Lan onek ez du azkeneko itza izan nai, lenen goa baizik. Izan dedilla batez ere euskaldunen sinismena sakontzeko ta gure aberria berpizteko.

Aralar'ko San Migel edestian

San Migel'en eliza ospagarria, Aralar'ko mendian, toki berexi batean daukagu, Artxuera'pean, egi batean, eguteran, Uarte Arakil gainean. Aralar'ko mendian dago ta Aralar'ekin ba du zer ikusi aundia. Ezin degu bere ezarri lekutik atera.

ARALAR izena bera oso aberatsa da; larre lurra, larre tokia esan nai du. Ala izaki ere, artzantzarentzat onenetakoa, belarra indar aundikoa. Artzantza ludi ontan dan ezkerotik, gizona bizitu izan da or goien. Ta Iztuetak orain dala eun urte zion, 800 artai bizi zirala berrogei milla ardiekin. Gaur oraindik Euskalerrian, artzaien toki berexia degu.

Emen, toki gutxitan bezela billatuko dituzte aintziñako garai zarrenetako illarriak. Jentillen baratza izeneko toki asko daude. Aspalditik billatu dituzte alderdi auetan treku arriak (dolmen); 1894-95 urtetan, Juan Iturralde ta Suit'ek amairu treku ta menir bat. Gero beste lau. Oroitarri oietan, Telesforo Aranzadi ta Franzisko Ansoleagak garai zarreko gizonen aztarnak billatu zituzten. Arkitutako gai asko Iruña'ko museoan daude. Ori dana Napparro aldetik.


1916-17 urtetan, Jose Migel Barandiaran'ek beste ogei treku arri arkitu zituan, T. Aranzadi ta E. Eguren jaunen laguntzarekin. Or bildutako gai asko Donosti'ko museoa daude.

Erromatarren garaian, Bordele'tik Iruña barrena Astorga'ra zijoan galtzara ederra Sakena ibarretik igarotzen zan, Aralar azpiko aldetik. Antonio Pio idazleak, garai artan, aipatzen du, bide onen ondoan "Araceli" izeneko tokia. Izen onek erreljio kutsua dauka ta iduri du erreljio gaiakin zerbait ikusi bear dula; garai artako jentillen elizen bateri ipiña izan ba litz bezela. ARAKIL gauko izena ortik datorrela, diote jakintsu askok. Aspalditik or, gurtza baten tokia izan zala, ematen du.

Zortzigarren gizaldian, moruak indarrez Españian sartzen diranean, ego aldeko lurraldetik zerule asko datoz gure mendietara. Karlomagno Frankoen errege ospetsuaren garaian ere, ipar aldetik, zerulen bizitza eraberritua sartzen da Naparro aldean. Orrela mendi auetan sinismena zabaltzen dabil eta gure artzaien sasi sinismenarekin eukiko zituzten beren eztabaida ta ezbearrak.

Kontuan euki bearra degu nai ta naiez, moruen edesti idazleak, gari artakoak jakiña, SAKHRAT KAIS izena, Iruña inguruan aipatzen dutela bizpairu aldiz. Lendabizi, 842 urtean, Abderraman H'ak Iruña erasotu ondorean esaten digute, inguruko gartzelu bat mendi baten gainean xetu zula. Mendiari SAKHRAT KAIS izena ematen dio.

Abderraman III, 924 urtean, berriz Iruña arront ondatu ondorean ba dijoa aurrera ta esaten digute, iri onen ondoan, SAKHRAT KAIS izeneko



gaztelua artzen dula. Iruña'ko erregeak, or gainean eliza eder bat egin zuala, bere ardurapean artua zeukana, diote gaiñera. Eliza ere ondatua utzi omen zuan.

Ikusten danez, kristauentzat toki babesa izaki nunbait; Iruña baiñan geiago. Ezin degu aztu mendi gainean dagola, gaiñera. Ez ote da Aralar'ko San Migel? Iruña'tik gertu, zaldizko guda mutillentzat bertan. Eliza zarren aztarnak dauzkan toki berexiagorik ez degu beste iñun arkitzen, inguru ontan baño.

San Migel'en agertu dira bederatzigarren gizaldiko etxegintzaren arrastoak. Emen dauzkagu ta ez beste iñun.

Dana dala, garai ontan, Aralar muga dala, emen kristau asko gordeko ziran eta inguruetan toki berexia zuten artaldeak eta abereak eukitzeko. Toki asko dago ta gaiñera babesa-

Gutxi gora bera, garai ontakoa degu San Migel elizaren lenengo oñarria, orain Iñigez erakasle jaunak agirian jarri duna. Poligonal antzekoa da, Karolingio izenakin ezagutzen dana, bederatzigarren gizaldikoa; gaur Naparroko elizetan ezagutzen dan aztarnik zarrena.

Amaikagarren gizaldian, papera zarrak aipatzen dute alderdi ontan, "Excelso, In Excelsitate" izeneko tokia. Amabigarren gizaldian, izen ori San Migel'enakin lotzen dute. Robert Putxulu jakintsuak dio, amaikagarren gizaldian San Migel'en izena naiz ez aipatu, "excelso" bere izen ordekoa dala.

Garai ortan San Migel, Zamarze lekaide etxeari lotua arkitzen degu. Zamarze'ko lekaide etxe

au berriz ia 987-997 urtetan aipatzen digute. Berderatzi, amar ta amaikagarren gizaldietan lekaide etxe txikiak Naparro osoan ugaritzen dira.

1074'garren urtean, esaten digute papera zarrak, San Migel'en eliza bat altxatzen dutela. Eliza buruko iru aldareak, alderdi ori batez ere, gaurko eliza aundiaren zati geientsuak garai ortakoak dirala ematen du.

Garzia Ramirez erregearen aurrean San Migel'go eliza 1141 urtean sagaratu zutela, esaten digute. Garai ontakoa da barrenean dagoan elizatxo txikia. Orduan egingo zuten au ta aundia berritu. Urte oietan egiña dago Zamarzeko eliza. Garai ontatik ezkerro ba dakigu apaiz talde bat emen bizi zala. Iruña'ko eliza nagusiari lotuak zeuden. Barren-go elizatxoa izango zan, ziur asko pakean uzteko otoitza egiten ari diran bitartean; nunbait erromeslari asko zetozen. Emen bizitzeko almena izate arren ondasun aundiak uzten dizkiote San Migel'eri, batez ere erriak, soroak eta abar.

Amairugarren gizaldian amabost apaiza zeuden. Emengo zuzendari bat, Juan Tarazona, Iruña'ko gotzaia izendatzen dute, 1205 urtean. Oneri eskerrak, geroztik otoitza abestua izaten zan.

Garai ontan ikusten duten eliza da, guk gaur ezagutzen deguna. Aundia, ederra, soilla, iru barrenekoa, bost abe sendoak berdiñak dituala eta bestea azkarragoa. Sarreran, ia barrenean, iru ate erdi borobillakin agertzen zaigu. Eliza aundia zarragoa dala garbi ikusten da, sendoa, zabala, gora luzea bainan soilla, irudirik gabe. Elizaren buru er-

diak, kanpotik, sei aieka ditu; barrenean, berriz, borobilla, beste bi aldaretxoak bezela. Barrengo elizatxoa geroago egiña da; bi sarrera ditu, abetxo batzuekin, ta abe buruetan irudi batzuek daude. Polita da, neurri egokikoa.

Amairugarren gizaldian idazten dute San Migel'en mirarien liburua. Or esaten digute eliza zarrara emakume baten lana dala. Antzinako lamien kutsu zarra dauka emakume onek. Esaten dute ere, emen eren suge bat ba zegola. Diote gaiñera, Garzia Arnaut zerulea, or San Migel'en zebilela otoi-tzean ta goserik ia illa billatu zutela. Roda'ko Pedrok Iruña'ko gotzaiak au jakinta, dirua ta arau batzuek emanaz, beste batzuekin alkarrekin bizitzeko lagundu zion.

Gizaldi ontan, agertzen dute San Migel, osakillen antzera, osasunaren laguntzalle bezela.

Amabigarren gizaldiaren bukaeran San Migel'en sortutako anai artea, Pedro Paris gotzaiak 1191 urt-ean egiña da, gure Aingeruaren debozioa Euskalerrri osoan zabaltzeko eta 1368 garren urtean ba zituan berrogei milla kofrade.

Ezin degu aztu ba dagola eliza ontan, zurezko gurutze eder bat, gotiko antzekoa, beti zokoren batean daukatena. Merezi luke nunbait agirian jartzea, bikaiña baida.

Amaseigarren gizaldian, zabaldu zan Goñi'ko Teodosio'ren kondaira. "Naparro'ko Erregen" liburuaren idazlana da; 1534 urtean Diego Ramirez Dabolos'ek egiña, berez Bianatarra. Goñi Napar sendi ospetsuaren kondaira apaindu nai izan zuan eta auen armarrarian arkitu zituan katea ta

erensugea. Arnaut zeruleakin lotu zituan eta San Julian'en gertakizunakin korapillatu. Gizaldi ortan orrelako gauzak egiten zituzten, aspaldiko erromatarren antzera. Sendi aundien aztarnak oso goien billatzen zituzten, asiera illunak ondo apainduta azaltzeko. Urte askotan etzun iñork ontzaz artu, oñarririk gabeko asmo au. Bainan orra nun, Burgi aita kaputxiñoak, emezortzi garren gizaldian agertzen digun berak ikusi ba lu bezela, 1774 urtean San Migel'eri buruz idatzi zuan liburu batean. Gerortik ipui polita izaki itzaldietarako ta orrelaxe zabaldu zan, errian bizi bizirik eutsi arte.

Emezortzigarren gizaldian igoko zuten, ziur asko San Migel'era Esmaltezko Erretaula edo Bixia. Berez ez dauka San Migel'ekin zer ikusirik. Aralar'erako egiña izan ba litz, gure Aingeruaren irudia agertuko luke. Ez da azaltzen. Nunbait oso garrantzi aundiko eliza batentzat egiña dago. Ziu-rrena, Iruña'ko eliza nagusi erromanikoarentzat. Garai artakoa da. Amabirjina bere aurrarekin agertzen zaigu erdian, Santa Maria izena darama. Katedrala gotikoa altxa zutenean, erretaula ere eraberri berdiñakoa izango zan eta esmalteko au al-daretxoren batean ipiñiko zuten. Aldare barrokoak egin zituztenean, orduan gotikoa baztertu bear eta emen dagona zokoren batean utziko zuten. San Migel'ko eliza katedralari lotua zegolarik, norbaitek onuntz ekarriko zuan. Orrela etorriko zan Aralar'era.

Emen dagola esan bear, garai ortako Europa'ko bitxirik ederranetako bat. Erromaniko gotiko bitartekoa, Limoge'n Frantzian egiña, zoragarria. Orren egilleak merezi du gure ospea. Irudiak lirañak dira, argiak, biziak.

Margo urdiñak eta orlegiak benetakoak. Es-maltezko ogeita bat irudi ditu. Irudien tartean abe-txo batzuek daude eta ikaragarritzko lana dutenak. Erretaula au bakarrik ikuste arren merezi du oñez San Migel'era igotzea,

1687 urtean osm zuten San Migel'en irudia; lapurrak atzeman zimzten. Berriz, 1797 urtean ostutzen dute zazpi gizonek; arrapatu ondorean erasotuak izan ziran.

Markotegi jaunak, 1828 beste liburu bat idaz-ten du Aralar'ko San Migel'eri buruz. Nabarro Bi-llosladak, berriz, 1879 urtean argitaratzen digu Amaya bere eleberria ta antxen lotzen du idazle onek San Migel ta Goñi'ko Teodosioren ipuia, Na-parroa ta Euskalerriko kondaira zarrarekin. Erro-mantiko garaia zan eta geroztik, Amaya liburu onek asko egin du Aralar'ko San Migel ezagum arazteko.

Arigita Korellatar kalonje jaunak, 1894 eta 1904 urtean beste bi liburu eder eskeiñi zizkion Aralar'ko San Migel'eri. Bere lenengo liburu orren itzulpena, euskeraz argitaram zuen Tolosan 1915 garren urtean, "Excelsisisco Miguel Sanmbaren Eliza", izenarekin. Iruña'ko katedralan gure Ainge-ruaren arduradun bezela zegoen. 1916 urtean, uz-taillaren 19'an, ementxe il zan gaiñera. Emeretzi-garren gizaldiaren bukaera ortan ta ogeigarrenaren asieran, erria erruz igotzen zan San Migel'era; Al-fonso XII erregea 1884 urtean eta baita bere se-me Alfonso XIII ere, 1902 urtean. 1889 urtean, garagarrillaren iru ta lauan, amabost milla erro-meslari etorri omen ziran.

1911 garren urtean, Frai Jose Lopez de Men-

doza Iruña'ko gotzaiak salgai omen zeukan San Migel'go esmalteko erretaula ta erostekotan Garisoain orduko arte zarra saltzailleak konde ruso bat eraman omen zuen ikustera. Gure ruso au arrituta gelditu omen zan eta baita milloi bat rublo eskeini ere (bost milloi pezeta). Berrogei milla pezetan salgai eukita, Gotzaiak eskeintza ori ikusi zuanean, beldurtu omen zan arront eta etzion eman. Or dago San Migel'en milagro.

Mateo Mugika, Iruña'ko gotzaiak, Naparro'ko Eliza Barrutiari eskutiz berexi bat adierazi zion euskeraz eta erderaz 1927'garren urtean Aralar'ko San Migel'en debozioari buruz eta Gure Aingeruaren kofradi indartsu baten bearra azalduaz.

1929 urtean argitaratu zuten, S. Uizi ta Juaristi'k liburu ederrenetako bat margozko argazkiekin apaindua; batez ere erretaulari buruz egiña, oso ederra.

1932 urtean asi zan Korpus eguneko ibillaldia izen aundia artzen. Gaur, or goien, urteko ederrera degu.

1933 urtean, maiatzaren 14'an, Jose Maria Abaurrea Irunseme, euskalzale ta kristau jatorraren bitartez, Errepublikako garai artan, San Migel nola etzuten erriz erri eramaten uzten, euskotarrak billera nagusi bat antolatu zuten eta bost milla erro-meslari bildu ziran eta baita 36 autobus etorri ere.

1933 urtean, abuztuaren 20'an, ogeita bost urte betetzen zirala euskaldunak San Migel zaindari bezela artu zutela 1909 urtean urriaren ama-rean, ogei milla euskotar bildu ziran gure Aingerua ospatzera.

San Migel'en eliza bainan askozez berriagoa,

ba zegoen ego aldera arrotz etxe aundi bat, igotzen ziren erromeslari guztiak an babesan izateko, ta 1942 urtean, irrullaren ogeita amarrean erre egin zan. Geroztik gaur arte oso estu ibilli bear an goian gelditu ezker. Orain etxe berria bukatu dute.

Orain urte gutxi egiña errege bide bikaiña San Migel'eraño. Lendabizi guardan etxeraño eraman zuten eta berriro goraiño. Len Baraibar'tik edo Guarda'n etxetik oñez atera bear gora iristeko.

Errestasun guzti auekin orain jendea noiz-nai erruz igotzen da . 1970 urteko Kospus egunean amazapi milla gízaseme joan ziran, 1.800 berebil eta 188 autobus.

San Migel'en anaiarte, ezdigaraian sortua, oso eroria zegola, Arigira kalonjeak berritu zuan ostera. Gaur oso eroria dago, baina ez illa. Naiz oso gutxi izan, irauten du. Merezi luke berpiztea ta indartzea. Erri batzuetan eusten diote oraindik. *Errazkin'go* (Larraun'en) Martenea etxean, San Migel'en "ermanuak" dira. Len urtero San Migel etortzen zanean, apaizak eta laguntzalleak bertan lo egiten zuten. Ermanuak diru saria emanta, gero illetak San Migel'en egiten zizkieten. Errira datorrela, bein etxera ekartzen dute, salako mai gainean jarri ta estazioa errezatzen diote, Bedeinkazioa eman ondorean, ikullura eramaten dute bendizioa edo onespina ematera.

Ermanuak urtero gasnak eta gaztañak biltzen zituzten errian San Migel'era eramateko.

Aipatu bearra degu Aita Lojendio'k, "Navarre Romane" bere liburu ederra ortan Aralar'ko

San Migel eta esmaltezko aldareari eskeiñi dion lana. "Zodiaque" saillean agerm dan liburu oneri esker, orain ludi osoan ezagutzen dute gure bitxi eder au.

Azkeneko lana Jimenez Jurio'k idatzi du, onenetakoa ta oso ondo egiña. 1970 garren urtean argitaratua izan da.

Gure Aingeruaren ondoan beti apaiz bat dago, beste laguntzalle batzuekin eta bere izena ez da nolanaikoa, San Migel'en Ministroa baizik.

*Aralar'ko San Migel elizatxoaren
asiera*

Orain dala bi urte agorran, ostiral batez, ba ninjoan oñez Orexa'tik Aralar'era. Buruan niman kezka guztiak garbitzen zijuazten, gero ta geiago lasaitzen. Azkenean Aralar besterik ez nuan ikusten. Oso argi nengoela, galdera bat bururam zitzaidan. Nola jaio ote zan Aralar'en San Migel'en gurtza? Zergatik jaso ote zuten eliza bat orrelako mendi gallurrean? Nun ote dagoen orren asiera? Nai gabe, azkar aizea artzen ninjoala, argiz bete zitzaidan burua. Len ain illun ikusten nimanak, garbitzen asten zitzaizkidan. Orduan ariaren bi muturrak korapillatu niman. Ordu arte ari zatiak bakarrik neuzkan. Aspalditik ari orren muturra billa nenbillen. Gero jakiña, idazteko garaia billambear...

Ara nundik asi nintzan ba, berri batzuek alkartzen.

Lenengo gauza dakiguna da, garai aurrenekoetatik asita, galtzara zarrak eta mendi bideak garrantzi aundia zutela. Giza alkartearen etzan ain bakardadean bizi. Inguruetakoekin arremanak eukitzen zituzten. Alkartzeko bideak bear eta ba zeuden ugari. Artaldeak berak ere irikitzen dituzte

bideak; batetik bestera dijoaz eta aien atzetik artzaia. Gai ontaz oso jakintsu degu Manuel Lekuona apaiza jauna. Berari askotan entzunda dakit, bide zarrak mendi lepoetatik lepoetara ibaiak igarota zijoaztela. Berari entzuna diot, aspaldiko mendi bidea Aralar'ko San Migel barrena dijoana izango zala; Sakana aldetik Amezketaruntz ain zuzen dijoakiguna. Jakiña udarako bakarrik balioko zuan eta artzaiantzat izango zan. Bide ori, orduaii, San Migel ingurutik barrena zi Joan, ziurrena. Garai artan galtzararik ba ote zan ?

Bigarren gauza garbi ikusten dutena auxeda: Ugaritze-gurtza oso zabaldua zegoela jentillen garaian. Artzantza garaiaren ondorean lurgintzarena sartu zan Euskalerriko mendietan. Lurgintzarekin batean jakiña, gurtza edo errelijio berriak ere bai. Lurgintza garaiko jentillen gurtzak eta errelijioak bizi ugaritasunari buruzkoak ziran. Ugaritasunaren bidez beti betiko indarra ta bizi berritzearen sinismena aitortzen zuten. Beren errelijio oituretan, iturriak, zugaitzak eta abar zitzaizkien atsegin. Urtean bizpairu aldiz toki berexietan biltzen ziran; eguzkia edo illargiaren goraberrakin batean, beren sinismenaren deiari barrengo erantzuna emateko. Ugaritasuna gurtzeko toki asko zeuden garai artan. Ekintza oietan ere gazteak gizonen jokabidetan sartzen zituzten. Lizunkeriko kutsu aundia zuten jai oiek; gabaz izaten ziran askotan. Kristau garaien asieran orrelako ugaritze gurtzak eta ibilli aldiak Grezi ta Erromatarren artean oso zabalduak zeuden. Lenengo Elizak ikaragarrizko borroka egin zuan oitura lizun oiek aldatzeko. Gaur oraindik ba daude orrelako oiturak

bai beltzen artean, baita Japon lurraldean ere. Euskal itsas gizon batek esan zidan bein batean orrelako jai bat ikusi zuala Japon'en jentillen eliza batean. Argazkiak ere erakutsi zizkidan; ura jentillen alkartea! Berekin, gaiñera, arrizko gizonki ta emazkien irudi galantak zeramazkiten, giza-emakume aiek, toki artara ugaritasuna eskatzera zi-joazen.

Nai ta naiez, ba zeuden Euskalerrian ere orrelako oiturak. Gai oneri buruz, Juan Talamas apai-za ta gizon jakintsuak ba dauka egiña ta argitara-tua idatz lan bat onenetakoa; xeetasun asko ematen ditu. Jimenez Jurio'ren lantxo batean irakurri dutenez, orain dala bi milla urte Antonino Pio erromatar idazle trebeak, Iruña inguruetako toki batzuek izendatzen ditu; mendi bat Ara Coeli izen-datzen digu ta gainera dio, izen orrek erreljio kutsua daukala. Karo Baroja eta beste batzuek, Arakil eta gaurko Uarte Arakil dalakoan dabiltz. Xee-tasun guzti auek gogoan eukitzekoak dira.

Irugarren gauza oso garbi ikusten dutena da, zortzi, bederatzi ta amargarren gizaldian ba zeudela Euskalerrian lekaide bakartar asko, maiz alkarrekin biltzen edo oso bakan alkarrekin ikusten zirenak. Auen bitartez sartu zan Euskalerriko mendietan Kristau sinismena. Lekaide bakartar oietatik ba zebiltzan Kogolla'ko San Millan'en ta Albelda'n(errioxa), San Juan de la Peña ta Leire(Naparro zarrean), Losa(Araba inguruan Burgos aldetik), Laño, Faido, Albaina, Korro, Bobeda(Araba). Beste Euskalerriko toki askotan ibilliko ziran, noski.

Jakiña, garbi dago, lekaide bakartar auek, jentillen oitura guztiak etzituztela ontzaz artuko,

ezin artu ere. Sinismena zabaltzen naiko lana zuten eta lizun oiturak baztertzen eta aldatzen naiko egiñalak egingo zituzten. Ori oso garbi dago. Toki askotan, gauzak zuzentzen etziran erraxak izan g^o-

Gogoan euki bear degu ere, Aralar'ko San Migel'eri buruz garai zarrenetako esaerak ba dau dela aspalditik jasoak. Goñi'ko Teodosio'rena ez da zarrenetakoa. Ipui ori gaur ezagutzen degun bezela amasei garren gizaldikoa da.

Esaera zarrenak iru xetasun ematen dizkigute; lendabizi erensuge bat, gero kristau bakartar bat eta irugarrena San Migel aipatzen dute.

Orain nere galderak datoz. Erensuge ura ez ote zan jentillen oimren eta lizunkeri guzien irudi berexia? Toki artan ugaritasunaren jentillen oiturak baldin ba zeuden, lenengo kristau aiek deabrukeriak bezela artu zitzaizketen. Aspalditik deabruari erensugearen antza eman zaio, sartaldeko lurralde geienetan asita.

Dioten kristau bakar ori, ez ote zan lekaide bakartar bisigotiko garaikoen bat? Euskalerra osoan asko zeuden. Aralar'ko mendi aietan jentillen ugaritasun gurtzak izan ezkeru, aldatu nai izango limzke. Jentillen toki artan bertan egingo zan aldaketa. Lizunkeriak deabrukeriak ba dira, deabru guzien irabazle San Migel degu. Ez da arritzekoa orduan, antxe bertan, Jainkoaren izena ain ondo gorde zuan San Migel goi Aingeruari eta beste deabru guztiak ankaperam zitoanari, elizatzu bat altxatzea. Orrela San Migel'en bidez jentillen oiturak eta zikinkeri guztiak lurperamko zituana. Ez zuan gauza makala egin. Gero urteak igaro, ipui politikak sortuko zituzten. Gauza bat da gertatu za-



na ta nai ta naiez ixildu bearra. Lizunkeri oitura aiek aztu bearrak zeudela. Beste gauza berriz, geroago, jende xe ta soilla-ri sinismenarentzat argibidea ematea ipui politak egiñaz.

Orduan ez al dezakegu esan, Aralar'en San Migel'ek garbitzen ditula jentillen garaiko ugaritasunaren sasi gurtza aiek? Europa'n ba ditugu, ori bera gertatutako, toki berexi batzuek. Adibidez, Gargano kobaren mendia ezaguna da Italia'n. Or San Migel'en bitartez, elizatxo bat alxtatuaz, jentillen sasi gurtzak aldatu egin zituzten.

"Edo, orduan, ainbeste agertzen ote zan San Migel eta gaur batere ez?"; Reta Izagaondoko errixka bateko gizon jatorrak ziona, nere gain artzen dut.

Garai berdiñako beste eredu batzuek ba ditugu. Normandi'ko San Migel'en mendia gogoan daukagu. Aralar'ko gertakizuna etzan orduan bakarrik Euskalerrian izan, beste toki askotan ere gauza berdintsuak esaten dituzte. Ez da arritzekoa; beste Santu askoren baselizekin ori bera gertatua da; lendabizi jentillen elizatxoak ziran eta gero santuen izenekin aldatu zituzten.

Laugarren alderdia agertu bearra da, gaur oraindik gauzen ugaritasunakin zer ikusi aundia dula Aralar'ko San Migel'ek. Iru xetasunagatik konturatu nintzan ortaz. Udaberrian erriz erri San Migel dijoanean, soro, lur, landa, abere ta ikulluetako ugaritasuna eskatzen diote. Aragoi'ko Pedro erregea, amabigarren gizaldian, San Migel'en elizara joan zan, bere gizonkien legortea aldatzeko eskatzera. Satrustegi apaizak oraindik eredu geia-go agertzen ditu bere idazlan batean; batez ere

emakumeak aurrak izateko San Migel'era igotzen ziran laguntza ori lortzera.

Gauza guzti auek ain garbi ikusten nituala ezin ixillik egon. Bateri ta besteri azaldu nizkien nere asmoak. Paris'ko nere adiskide jakintsu bateri au bera agertu nion eta erantzun zidan: "San Migel inguruetako lurak eta bertakoak ere bai, urratu bear zirala jentillen garaiko ugaritasun gurtzaren siñaliak arkitzeko. Zerbait billatu ezker, orduan bai esan dezakegula asmatutakoak egiak dirala.

Ba dakit asmo auek, ortan, asmotan gelditzen dirala, baiñan zerbaitean egiaren mugetara urbiltzen lagunduko digutela, uste dut. Errekaren iturria ezin degunean billatu, nunbaitetik asita asmatu bearra dago.

Dana dala, Aralar'ko San Migel'en gurtza edo debozioa Naparroko mendietan kristau sinis-menaren asieran garaiko aitorle degula, deritzait.

San MigeTen irudia ta Euskalerrri zarra

Nere ustez, Aralar'ko San Migel'en irudiak zer esan aundía dauka. Ez da nolanaíkoa. Europa'ko kristau errialdetan irudi berexia ta bakarra bezela agertzen zaigu; Gurutzea bi eskuekin artuta buru gainean darama. Zer esan nai du buru gainean daukan gurutze orrek?

Gaurko irudiak bi zati ditu. Bat, zillarrezko irudia ikusten deguna; iru leyar ditula, gurutzean, arpegian ta bularrean. Bestea zillarrezkoaren barrenean dagona, zurezkoa ta zarrena. Zillarrezkoa zurezko irudiaren kutxa bezela da.

Gaurko zillarrezko irudia, esate baterako, berria degu, 1756 urtean egiña, barrokoa, oso ederra. Irudi zarrari azal berria egin zioten, oso ondantua zagolako. Askotan ostu zuten, nolanaí ibilli ere bai ta azkenean ondatua utzi bear.

Irudi zarra iltziakin zulatua dago. Ziur asko etzuten egurragatik ostuko, zillarrarengatik baizik. Garai zarretan, gogotik zillarrez apaintzen ta jazten alegintzen ziran debozio aundiko irudiak. Zillarrarengatik lapurtzen zituzten.




Aralar'ko zurazko irudia, zillarrezkoaren barranean dagoena, garai zarrenetakoa degu; bi eskuekin burugainean gurutzeari eusten zion.

Irudi au oso ezaguna zan Naparro zarrean. Nunbait maite zuten. Aralar'koaren antzekoa, eta Berrioplano eliza erromanikoaren sarreran dauka gu arrian egiña amabigarren gizaldikoa. Onek esan nai digu, Aralar'koa zarragoa zala eta gaiñera oso ezaguna. Zorokian'go etxe sarrera gaine batean ba degu beste irudi bat, Aralar'koaren antzekoa, bainan askozez berriagoa.

Ikusia dago gainera, San Migel'en irudi, au, erriz erri, ibiltzeko egiña zala, makil gainean artuta eskuetan eramateko. Ibillaldietarako zeukaten eta ez bakarrik aldare gainean eukitzeko.

Deio gazteluko Gurutzea ikusi nuanean, bururaru zitzaidan, elburu berdiña izango ote zuan Aralar'ko San Migel'enak. Lizarra gainean Errioxa aldera ditugu bi mendi, bat oso ezaguna Jurrandi (Montejurra), bestea lenago, Deio izena zuana, gaur berriz Monjardin. Mendi ontako gazteluak zer esan nai aundia dauka Naparroko edestian. Gaztelu orretzaz Naparrak edo euskaldunak ondo jabetu ziranean, Lizarra inguruetako lurak bereganatu egin ziruzten. Orrela etzeuzkaten Andimendi ta Urbasa bakarrik bizitzeko, Errioxa'runtz atea irikia zeukaten. Gaztelu ortaz, Santxo Garzes 1.908 urtean jabetu zan. Or, Iruña'ko gotzaia bizitu zan amargarren gizaldian. Gaztelu ortan zeukaten zurazko Gurutze bat oso maite zutena. Moruekin eukitzen zituzten berrokaetara berekin batean eramaten zuten. Geroztik maite dute ainbeste



inguruetako lur aietan. Geroago, ain garrantzi
aundiko Gurutzea, erromaniko garaian, Naparro'
ko erregeak zillarrez jantzita apaindu zuan. Arte
aldetik, zillarrezko lanak du aberastasuna. Bainan
edesti aldetik egurrezko gurutzeak du garrantzia,
moruen borroketan euskaldun zar aien eskuetan
ibillia dalako. Berri auek, "Navarre Romane" Lo-
jendiok egindako liburutik jaso ditut.

Gai ontaz mintzatzen danean, frantzesez ar-

gitaratutako lana da oso ona. Erdaraz egindakoak oso gutxi balio du.

Gaur Gurutze au, Deio mendi egalean dagoen erriaren elizan eukitzen dute, Monjardin'go Billamaier'ko errian; udaran berriz Iruña'ko eliz nagusiaren museoa. Gurutze au nola ibiltzen zuten jakiteko, Artaiz'ko elizaren irudi batean agertzen zaigun gurutzeak ematen digu argia. Deio'ko Gurutzearen antzekoa degu, eskuekin makil baten gainean darama gizezko batek.

Ara, ba nun artu nuen Aralar'ko San Migel' en irudiaren zer esan naia jakiteko argia. Aralar'ko San Migel'ek Gurutzea darama buru gainean, ura eutsi nai du, ura zaindu ta babestu. Gurutzeak asko esan nai zuan moruen garaian. Sinismenaren ikurriña zan, kristau erriaren egitazko indarra.

Aralar'ko San Migel *egi* batean dago, andik urrutira ikusten da Andimendi, Urbasa ta Kantabria mendiak ere bai Errioxa gainean. Eskuetan ibiltzen zuten San Migel'en irudi ura ez ote zuten eraman 923 garren urtean Abderraman III Aundimendiaren biotzaraiño sartu zanean bere guda mutillekin eta geroago Almanzor 998 urtean inguruetako errietan ibilli zan garai artan? Nere us-tez egun txar oietan eramango zituzten gerratera kristau ezaugarri edo siñali guztiak, gutxinaz indar aundikotzaz zituzten guztiak. San Migelen bearra ere izaki. Ala bear. Irudi orren zer esan nai aundia, garai artako eta egun txar eta latz aien jorkabidetan billatu bear. Ori bai, garbi dakiguna da, Alfonso Burrukalariak, Zaragoza bereganatu ta indarrez artu zuanean 1119 garren urtean, Naparrak

lenengoak sartu zirala ta sartutako tokian San Migel'eri eliza bat altxa ziotela.

Sinismena zaintzen zuten, lurra ere gorde naian zebiltzan. Sinismena ta Euskalerrria bat egin-da azalduko ziran. Ez ote zan ba garai artan jaio ere euskal zar aien irrintzia, "Migel gorde Euskalerrria".

Orduan galdera bat egitera beartzen gera. Aralar'ko San Migel inguruan ez ote zan jaio "Euskalerrria" izena. Ordu arte noiz bildu ziran euskaldun guztiak beren lurra zaintzeko? Noiz ikusi zuten beren sinismena ain larri? Noiz alkartu ziran ain ondo sinismena ta Euskalerrria? San Migel'en irudiak garrantzi aundia izango zula, ori garbi dago ta euskal kulturari bere sillua emango ziola ere bai. Gure edesti zarrean, garai ontan bezin ondo gutxitan egokitzen dira gauzak. Garai latzak ziran bederatzigarren gizaldiko urte auek, euskaldun zar aientzat. Orduan bai il edo bizi. Danna dala, asko aurreratu ziran euskaldunak. Beren Gurutze ta guzti ibilliko ziran. Aralar'ko San Migel toki babesza zan, bainan muga. San Migel'eri bakarrik eskatu zaio, gizaldi ta gizaldietan: "Gorde Euskalerrria". Noiztik asiko ote ziran ori eskatzen? Euskalerrriko biotza bera iltzeko zorian zan garaian, nere ustez. Garai txarrenak Abderraman eta Almanzorrenak izan ziran. Orduan, euskaldunak Aralar'ko San Migel berekin zebilkiteela, ez ote zan bere inguruan Euskalerrria izena ere jaio?

San Migel'en irudi zar orrek zr ikusi aundia daukala gure Euskalerrriarekin, garbi dago. E?in a?tu, jakintsuak diotela, zurazko irudi ori erromaniko garai aurrekoa degula.

*Aralar'ko San Migel'en udaberriko
ibillaldia*



Gipuzkoa, Lekuona jaunak dion bezela, "mendia ta erreka" ba da, euskal Nafarroa berriz, arkaitza ta basoa. Udaberria datorrela, argi berri bat dakarkigu ta ostoz apaintzen zaizkigu mendiak, ta arkaitzak zillar margoa artzen dute. Errekaz gora ta bera, arkaitz tartetan barrena, ostoak ukitzen

ditula, Aralar'ko San Migel jeixten da mendi gailurretik, eguzkiakin batzuetan, bestetan Artxuetako lañoak laguntzen diola. Orrela, erriz erri, urteko ibillaldiari asiera ematen dio. Euskal Naparroko udaberriak ba du kutsu berexi bat, "Aralar'ko Zerutar Arranoak" bere agurrarekin ematen diona. Udaberriakin erri guztiak San Migel'en zai egoten dira. San Migel beretarra dute, aspaldikoa, laguna, anaia ta zaindaria. San Migel'ek babesten ditu erri guzti oiek eta euskeraz Berari kantatzea atsegin zaio. Ba daki lur ori berea dala, berak babesten dula, beraren bitartez erriaren nortasuna sortu zala ta lurraren ugaritasuna berari eskatzen diotela. Ba ditu bere lanak, egin bearrak. San Migel norbait da Euskal Naparroan. Emengo udaberria ez da beste lekutako udaberria bezelakoa. Erriz erri baillara guztietan barrena ibiltzen da. Erri guztiak ezagutzen ditu. Berak ematen dien saria auxe da; argia, bizia, osasuna, ugaritasuna, alkartasuna, euskal lurraren maitasuna ta sinismena.

Erriak ez dira beraren billa nolana ateratzen. Danak agurtzera datozkio, aurrak eta zarrak, kanpaiak ez dira ixiltzen, kantari agurtzen diote, parrokiko gurutzeak ere bidera ateratzen zaizkio. Euskal Naparroko errietan San Migel ikusi dunak, ba daki an, zerbait gertatzen dala. Euskal erri zarrak berriarekin alkartzen dira, gure lurra indartzen da ta errien sena pixten.

San Migel'en ibillaldia luzea da... Garai batean, erriz erri eskuetan eramaten zuten. Aralar'ko Aingerua, eskuetan artzea atsegin zitzaien erritarrei. Gaiñerakoan San Migel'en morroi sendoak ibiltzen

zuten. Erriko mugaraiño, danak parrokiako gurutzearekin batean laguntzen zioten. Mugaraiño zertorkion billa urrengo parrokiako guretzeari. Aingeruak gurutzeari mun emanta, danak erriruntz zi-joazten.


Aralar'ko San Migel'ek ondo ezagutzen ditu Naparro zarreko mendi bideak. Ibillaldi luze ortan, askotan, San Migel'eri laguntzen zion apaizak, mando gaiñean; danen atzetik zijoan.

Gaur berriz, errege bidetik dabilkite, berebilla daramakite... Ez da gaur len bezela. Dana da la erri oientzat beti San Migel bat bakarra da.

Udaberri batzuetan, guk ere lagundu izan diegu San Migel'eri bizpairu errietan. Larrun'go baillaran, Iribas errian gu iristerakoan ba zijoan aurretik. Elizaren kanpai dorre luzearen ondo igarota, enparantzan Gurutzeari muin eman zion eta eraman zuten... Alli errixkan kanpaiak jo zituzten, bildu zan jendea, atera zuten gurutzeari ta iturri baten ondoan San Migel sartzerakoan mun eman zion. Bertan egin zituzten San Migel'en laguntzal-leak, otoitzak, eta kantari elizara eraman zuten...

Bizpairu egun geroago, ba genekin Iruña'ra joatekoa zala. An ere, San Migel'eri laguntzeko asmoa genuen. Iruña'ra Orkoien erritik oñez eramaten dute eskuetan. Orkoien'era urbildu giñan. Egi batean dago eliza. Andik Iruña ondo ikusten da, baita inguruetako zelaiak ere San Kristobal'en gaztelua aurrez aurre genuen. Jende asko bildu zan, pozik, alaitasunez, oso zintzo. San Migel agurtzera, laguntzera ta otoitz egitera etorri ziran. Apaizak eliz atarian egin zituan bere otoitz berexiak eta an giñan danak berarekin batean. Gero danak oñez

abiatu giñan Iruñaruntz, Miluze'ko zubiatic sartze-
kotan. Aurretik Aralafko Aingerua zeramakiten
eskuan makil baten gainean, atzetik laguntzalleak,
gizonak eta emakumeak. Azekena, apaiza elizako
jantzi txuriakin, mando gaiñean, aberea muturre-
tik artuta ijito beltz batek zeramakin. Takonera'ko
arrizko gurutze inguruan Iruñatar gizaseme erruz
bildu zan, pozik, alaitasunean, zintzo asko. Inguru-
ko loretegiara iristerakoan, apaiza jetxi zan mando-
tik eta San Migel eskuetan armta berak eraman
zuan. Arrizko gurutzera iristerakoan, Meka'ko ain-
geruak eman zion musu bat eta txistulariak "Agur



Jaunak" jo zioten. Gero, txistulariak euskal doñuak joaz aurretik zijoaztela, San Nikolas elizara eramán zuten. Gizonezko errenka luzea zijoan atzetik. Gero ta jende geiago biltzen zaio urtero. Onek zerbait esan nai du. Euskal giroa indartzen dijoa Iruña'n. San Nikolas elian euskaraz abesm zuten Aralar'ko Aingeruaren kanm berexia.

San Migelen ibillaldietan otoitzak egiteko era-biltzen duten ritualak, merezi du aipatzea. Oso berexia da. Errietara iristerakoan, parroko gurutzea ateratzen zaio bidera bertako apizakin ta San Migel'ek mun ematen dio. Ondorean, San Migel'en apaiza laguntzalleak, "Veni Creator" kantamz asten da otoitzak egiten. Lurren bedeinkazioa dator. Lenengo otoitzak, pixti ta ekaitzak baztertzeko dira. Gero lau alderdietara begiratuaz, txandaka lau Ebangelioetako zatiak irakurtzen dim; Errege magoen agurtza, Jende aien buru gogorkeriak aipatzen duna, Amabirjiñaren sortzea ta Jainkoaren Itza gizon egitea. Auxek dira lau irakurgaiak. Berriz, lau aldetara begiratuaz belaunikatzen dira ta apaizak lau aldetara San Migel'ekin lau gurutze egiten dim. Bildu diran kristauak iru aldiz, "Deo Gratias" esaten dute ta azkenean, "Deo immensas gratias". Parrokiko gurutzeak puxka batean bidean laguntzen dio ta San Migel'ek mun emanda joaten da...

Ritual onek bizitasun aundia du ta aberatsa da. Erria bilduta, Jaunaren Itza entzuten du ta Jaunaren izena goستن, lurraren emaitza ta danen osasuna eskatzen diote. Buruan asmo sainduak dituztela, gorputza ere lanean ibiltzen dute. Orrela-

ko ibillaldiak on egiten dio gorputzari, bere lana ematen dio. Ez dute egonean uzten. Orrek ba dauka bere garrantzia.

Au dana ikustean eta oñez ibilliaz, konturatu nintzan Napparoko sinismena oñez dijoaztela zuzpertzta ta sendotu dutela. Etzanda dagola, ez da sinismena sortzen.

Orain galdera bat egin dezakegu. Noiztik ote dabil San Migel erriz erri? Jimenez Jurio idazle trebeak dio amazapi garren gizaldian asi zirala ibillaldi auk egiten. Edo lenagokoak ditugu? Jentillen oitura zarrak ugaritasunaren gurtzari buruzkoak jarraitu al ditu San Migel'ek? Edo euskaldunen alde garai txarrenetan egin zituan lan onagatik eta geroztik oroigarri bezela asita, al dabilkite erriz erri? Jakintsuak dute azken itza. Dakiguna da, gaur oraindik, bere menditik jeixten dala, babesa berexia ta Jainkoaren grazia eskeintzen ari zaigula. Bi ekintza oiek batean alkartzen ditula Aralar'ko San Migel'ek urtero: erritarren sinismena zuzpertzten du ta Euskalerrria zaintzen. Ba degu Bere bearra.

*«Orixe» ta Aralar'ko
San Migel*

"Orixe" degu, Euskalerrriak izan duan idazle onenetakoa ta bere lanik ederrena "Euskaldunak" liburua, euskaldunen poema da; Odisea grezitarrentzat zana, "Euskaldunak" liburua Euskalerrriarentzat. Bere liburu nagusi ortan, Aralar'ko San Migel'eri atal osoa eskeintzen dio. Atzoko oiturak, esaera zarrak eta gaurko egoera San Migel'ekin lotzen ditu.

San Migelek Euskalerrria zarra ta berriakin dauzkan lokarriak agertzen dizkigu. Orregatik, Aralar'ko San Migeletaz mintzatzerakoan ezin dugu aztu "Orixe" ren lan au.

Gure idazlea, Aralar'ko mendi aurrean jaioa degu. Orexa da bere jaioterria; Aralar mendiaren aurrean dago ipar aldetik. Ango aize sakona, arpegian artzen zuala, Uitzira eraman zuten. Larraun'go erri ortan berriz, San Migel'en giroan bizi izan zan; Aralar'ko lañua ta argia ikusiaz, ang aizearen otsa ta berriak entzunez.

Bere errian idatzita dago liburu au, Gogorzane baserrian, Aralar'ko Malloen gallurrak ikusten zituala. Euskalerrriko poema idazten ari zanean ezin Aralar'ko Aingerua aztu, San Migelek Eus-

kalerriarekin zer ikusia ta zer esan aundia daukala-ko.

Gai ontaz, 801 bersoen bitartez mintzaten zaigu. Atal osoa eskeintzen dio Letari izenarekin. Bere itzak, asmoak ta esaerak zoragarriak dira; izan ditezken ederrenetakoak.

"Euskaldunak" poema liburuak dabilkin lokarrian, ikaragarrizko legortea sortzen da. Aitzaki orren bidez aipatzen du Aralar'ko Aingerua ta agertzen ditu oitura ta esaldi zarrak, garai berean gaurko egoera ere azaltzen du ta Euskalerriko teologia egiten. Itxaropenezko itzakin bukatzen du bere lana. Merezi luke "Orixe" k egindako lan onen alderdiak ondo ikustea, garrantzia daukate-lako.

Esan degun bezela, gai au erabiltzeko laguntzen dion giroa zortzen du: legortea. Gorriak esaten ditu;

"Bi illabete legortek aurreratu du uda...
Berroita zortzi orduz egoak indarra.
...An erio gaizto..."

Or sortzen da "Letari" garaia ta "Orixe" k aipatzen dizkigu Larraun'en berak ezagututako oiturak. Esaten digu San Migel'eko ibillaldian zer egiten zuten urtero erri oietako euskaldunak. Legortearen aurka laguntza eske joaten ziran, bainan bearrezkoena egin, au da, sinismena zuzpertz ta barrena zuzendu. Bideko oiturak agertzen dizkigu lendabizi.

"Lekunberriko mugan lenengo oroipena
goiko bidexkan dagon Gurutzearena
Ata'ko Gurutzera beiratu zuzena...
goizetik otoitz onez berotuz barrena".

Bidean otoitzean dijoaz; ara, esaera ederrak:

"Bederatzi —Gloria-aingeru taldekin
—Nor Jainkoa bezela? —ondotik eraskin...
dei eder au entzunik mutillak atsegin,
Bataioan igurtzi bai zuten arekin".

Erri batzuek Baraibar'tik artzen dute bidea
goruntz, besteak berriz Malloetatik. Gora iritxi ez-
kero, lendabizi —Trinitate Elizatxo^— agurtzen
dute:

" Agertu bat aurrena irutasunari
urrena, Gudari dun Goi Aingeruri".

An goitik, ikuspegia ezin ohea da.

" Ageri... makiña bat erri".

Erromeslarientzat, ibillaldi au etzan "turismoa"
egitea izaten.

" Jendeak eldu dira oiñuts eta baru".

Iristerakoan, biotzak lasaitzen dira, atsedena
artzen dute, mendi ta erri ezin konta ikusi ondo-
rean, ba dijoaz San Migel'en elizara, sar-atera egi-
tera, aldare ondoan dagon zuloan burua sartuta
Kredoa errezatzer.

"Elizan sar atera Letarien aitzin;
aldare eskuiñetara sugearen osin:
an Kredo'ka ari dira dutenak buru miñ".

Otoitz toki berexi bat bezela zuten euskal jendeak
elizatxo au. Giro jatorra agertzen digu bertso gar-
bi batzuetan.

"Lur eta biotz baretu arte
otoi ta arren emen nago".

Biltzen dira danak eta alkarrekin letariak esanaz dijoaz Trinitate elizaxora.

"Apaizak ari du Letaria...
Irukoitzaren Elizatora
jende saillaren lerroa
begiek apal, biotza goian,
kanta durundaz dioa".

Ondorean Meza ta Aingeruari mun ematen zioten.

"Letari oien urrena, aldare
banari belauna bigun;
bereal Meza ta aren ondoan
Aingeru Aundiari mun".

Benetan ederra, zar ta gazte saillak ikustea, aldare inguruan bilduta, Aingeruaren iduriari mun ematen- Ura apaltasuna, sinismena ta maitasuna!

"Zenbat gizaldik kokatu dute
Irudi ontan ezpañña".

Azken agurra egiterakoan eta San Migel'i mun ematen ari dirala, sortzen da, bilduta dagoen erriaren ezpañetan San Migel'en kanta zar bat.

"Mun bitartean, kanta au Mikel'i
oles eta azken agurra:
Jaunaren morroi leiala
gure erriaren itzala:
dakigun arren Aingeruetan
indarrez aundi zerala

—Mikel izenak esaten digu
—Nor Jaungoikos. bezela?—"

"Orixe" k gaiñera atal ontan, San Migel aipatuaz, euskal edestiaren ta erriaren teologia egi-ten du. Teologia ori San Migel'i lotua ta erantsia agertzen digu. Gutxinaz asiera bat ematen dio eta bere iritzia azaltzen du.

"Orixe'rentzat, lanarentzat giroa eskatzeko igotzen da euskalduna San Migel'era, goi arnasa artzeko ta barrena zuzentzeko. Baina San Migel ta Euskalerrria loturik daude betiko. Ara bere Euskalerrriko teologiaren oñarria. San Migel, Jainkoaren morroi zintzo ta zuzena degu.

"Nor Jainkoa bezelaP-ondotik eraskin
—Mikel— izenak au du barnean berekin";
"morroi indartsu Mikel or dauka
Aren esanai begira".

Jainkoaren izena ezagutu arazten digu eta izen ortan ikusten dute kristauak bataioaren ezaugarria.

"Dei eder au entzunik mutillak atsegin,
bataioan igurtzi bai zuten arekin".

Aralar'ko mendi oneri, Euskalerrriko Sinai mendía deitzen dio:

"Gure Sinai mendi ortan".

Ara garbi esana, Euskalerrriari mendi ontatik eskeñi ba lio bezela, bere nortasuna zaintzeko aukera, batasunean bizitzeko legea ta maitasunean irauteko kemena.

"Tximist ortotsez, erakus Jauna
gure Sinai mendi ontan
bakar zerala Jainko; sar zazu
zure legea guregan".

Beste izen berexia ematen dio, "Naparroko Aingerua", Jainko berberak zaintzeko jarri ba lu bezela. Itun zarrean, Jainkoak errialde bakoitxari, Aingeru berexi baten laguntza eskeintzen dio. Israeli San Migel eman zion. Goi Aingeru au bera daukagu Naparroko goiburu.



San Migel Aralar'en agertzen digu, gure idazleak, Jainkoak Berak bidalia bezela ba lego, Euskalerriko lizunkeria menperatzeko ta asmo txar guziak uxatzeko. Neurketa polita bat egiten du; Aralar'ko goi arnasa, Zugarramurdiko lizunkeria-ren aurrean jartzen digu.

"Aker bat dakust Zugarramurdi'n
sorgin ta lamien baltsa.
Erri xumeak sinisten zizun
ikaraz aien esana.
Atso lizunok pekatu aundi
Akellarre beltz, damurik au i
Europa guzik ezagun!
Jainko Bildotsak suntsitu digu
akerren jaurreri ori;
olako jaunik iñoiz ez bedi
Euskalerrira etorri,
Lizunkeriak sasi ta larraz
bete ez bera gure mendi.
Aralar ontan Jainko Bildotsa
gaur geroz Errege bedi".

Toki au, antziñako Naparroaren sinismenarekin lotua bezela agertzen du. Jakiña, sinismena indarberritzen lekua baida.

"Begira, beintzat, fede bizizko
aurreko Naparroari.
Ez uka, damuz fedea biztu
nai duan oraingoari".

Oraingo egoera ere azaltzen digu Orixek. Begia erne dauka, ikusten ditu gure artean kalte ta utsune latzak. Esaten dizkio egi eder batzuek Eus-

kalerriari. Gaitz oien aurka osakia ere eskatzen dio gure Aingeruari.

"Zillegi bekit gure erriari
egi latz biren esate.
Aurtzaroz geroz, ez izan arren...
ordutik zerbait ez ote da alda
Euskalerrri fededuna? ".

Lendabizi lizunkeria aipatzen du. Aurretik, Larraiz'ko berriak izan ote ditu? Orduan, jakingo ote zuan norbaitek 1971 garren urtea, "Larraitz 1971" bataiatu zuala?

"Ots, baino! Or dator! burua aker ta...
lizunkeria, mendia gora
gure egun oetan ere...
Erri au ere ikusi nai du
ats lizun orren mendetan".

Gero ere, esaten ditu bertso zorrotzak, itz itxusiak erabiltzen dituztenentzat eta biraoka ibiltzen diranentzat. Euskalerritik orrelako oiturak aidean bidaltzeko, eskatzen dio San Migel'eri. Esaten digu garbi asko gaitz ori erbestetik sartu zai-gula.

"Zuk, Jainko Bildots, lurraren jabe
bialdu Mikel morroia,
zu-il-gurutzea buruan dula
aiza dezan suge loia;
mingaiñean dun erdoia;
Gure aitonen Jainko aundi
Irutan santu zerana,
zure semeak lizundu dute
ats ez diteken izena.

Euskalerrian ez bedi zabal
koko erriko legena.
Lendanik ba du gaitzik aski, ta".

Biraoak ere baztertu nai ditu, arrazoiarekin.
Euskera garbitu nai du. Bearrean dago.

"Biraua bezin oben gaiztorik
eguzpiketan ez baita,
ain eder, ortaz, Jaungoikoaren
izena goi aipatzea.
Or dituzu bi santu euskaldun
Xabier eta Loiola
mundu osoan zabali dute
zure izen orren ederra.

Izkuntza au birauz loitu bear ba lu
ez nuke nai euskararik".

Oso itz gutxikin adierazten digu beste gaitz
txar bat. "Esku gorriak", aipatzen ditu. Anaiaren
odola ixuritzen duten eskuak esan nai ote du
orrekina? Sinismenari ziñez eusten diona, ezin
orrelako joko txarretan sartu.

"Ezak sinismen, esku oiek
ez bitez, aurrera gorri... ".

Sinismena dauka gogoan sartuta gure "Orixe"k
eta Sinismenaren bearrean dagola Euskelarria dio.
Sinismena, bai, bearrezkoena eta ori gabe galduta.

"Jainkoaren Gurutzari
Satan'en ikaragarri
eraman zuzen zeruetara
egiten dugun eskari:

Euskalerriak eutsi bezaio
aitonen sinismenari".

Sinismenaren ondorioa bezela, lurraren jabetasuna izango dula erriak uste du. Sinismenari eusterakoan, itxaropenezko asmotan dabil. Bere ustez orduan emango dio Euskalerriri Jaínkoak aberriaren nagusitza.

"Jabetasuna galdu dulako
dago erri au damutan,
lurra galdurik, erritasuna
egizu ez dezan.

Ez ote zīñan bearrezkoa
gure aiten Euskalerrri,
erri-lurretik alde egin bage
biur zindezen mende-erri?
Fedearekin erritasuna
gorde beintzat, Jabe berri
Jainko Aundiak egiñen zaitu
Sinismenaren geigarri".

Ondorean datozten bertsoak, neretzat ederranak eta merezi lukete urrezko izkiekin idatzita San Migelen elizan egotea. Itxaropenez beterik daude idatzita, eguzkiaren sartaldea bezin ederrak. Itxaropena bai da, sinismenaren emaitza ta ekin-tza aundi guztien asiera.

"Jaunak arnasa dit oraindio
nere lan au jarraitzeko;
biotzak diraust bein ere ez dala
Erri maite au galduko.
Erritasuna gorde ba deza

Erri lurraz jabetuko
Beza sinismen; ta ain gogo dunik
Jaunak ez dio ukatuko".

San Migel aipatuaz, Letari atalatik bearrezko dei bat adierazten dio "Orixe"k Naparroari. Bainan Jaunari esker, berak asmatzen etzuna gertatzen ari da. Naparroa esnatzen ari zaigu. Gaur zoragarria da ikustea Naparroan euskal berpiztea Ebangelioko illen antzera.

"Erna adi, napar, euskaldun, ernagaurko lo zorro orretati".

"Orixe"k, auxe esan nai dio Euskalerrinari; jator jokatzeko, lizunkeriariko uko egiteko, sinismen aundiko asaben oiturei eusteko, sinismena zuzperetzeko, goi arnasa zabaltzeko, alkarteko giro jatorra sendotzeko ta San Migel'ko Jainkoaren aldetik lurraren jabetza ekarriko diola.

San MigeVen kanta zarrak



Euskalerriko aberatasunetan aundienetako bat, bere abestiak dira. Euskaldunak zerbait esan nai dunean, kantatuz egiten du. Orregatik San Migel'eri buruz lan au egiterakoan, bearrezkoa dala pensatu degu, erriak dakizkin kanta zarrak erans-tea. Orrela obeto jakingo degu, Euskalerriak nola agertu dizkion bere asmoak Aralar'ko Angeruari,

baita ere nolakoa dan bere jakíntza. Auxe da biderik onena, eta kanta ta doñu zar oiek bizirik gorde ditzagun gure artean.

Lendabizi ipintzen degu, aldi bakoitzean San Migel'en gaur egun kantatzen dan abesti ezaguna ta ain errikoa dana.

Ondotik Jose Maizak emandako kanta zarra dijoa. Gero Aita Donostik bildutakoak eta Aita Jorge Riezu'n esku onez artu ditugunak, aipatu bearrak dauzkagu.

Azkenean berri batzuek emango ditut, eras-kin baten antzera.

I—*San Migel'ko Elizkizunen abestia*

Gaur oraindik San Migel'ko elizkizunetan abestutzen dute abesti au. Joan dan gizaldiaren asiera arte, erriaren izkuntzan elizetan etziran abestirik sartzen. Emeretzigarren gizaldian asi zitzaizkigun. Gizaldi orren kutsua dauka abesti onek, liberalak ere aipatzen ditula.

NOR JAUNGOIKOA AÑA?

("Ave, Ave, Ave María", bezela)

*Mikel, Mikel,
Mikel guria,
Gorde, gorde
Euskal Erria.*

- 1.—Guazen, Euskaldunak
Aralar'era
Mikel Aingerua
Bisitatzera.
- 2.—Aralar mendira
Igo gaitezen
Mikel Ikusteaz
Ez gera aspertzen.
- 3.—Aitortu dezagun
Bere aurrean,
Naiko degula ill
Geren fedean.
- 4.—Euskalen lurtean
Giñaden jaio,
Gure sinismena
Bizirik dago.
- 5.—Errekaredoren,
Fede garbia,
Sekulan gezurrez
Nasi ez dedilla.
- 6.—Aurrekoetatik
Degu ikasi
Oso ziñez eusten
Lege onari.
- 7.—Egiak ziyozkan
Españiari
Probetxu mesede
Asko ekarri.

- 8.—Eztegu nai autsi
Kristau legea,
Ez dotriña gaiztoz
Gaur nastutzea.
- 9.—Osorik osoan
Guztia gordez
Eztezagun saldu
Gezurren orde.
- 10.—Alperrik Satanás
Leiatuko da:
Eztigu galduko
Sinismen ona.
- 11.—Euskaldunak pobre
Izan gindezke;
Euskaldunik ezta
Federik gabe.
- 12.—Aralar'tik Mikel
Begira dago,
Luzbelek parterik
Eztu izango.

JOATERAKOAN

("Adiós, Reina del Cielo", bezela)

*Agur, Mikel Aingeru,
Agintari aundia,
Izan beti tronutzat
Aralar mendia,*

- 1.—Aditu euskaldunen
Itz miñez beteak.
Bota Euskal-Erri'tik
Deabruen jendeak.
- 2.—Bakarrikan nai degu
Gure Jaungoikoa,
Fede bat, Bataio bat
Biotz bat osoa.
- 3.—Atera zazu, Mikel,
Ezpata zorrotza
Dragoi liberal ori
Utzitzeko ill otza.
- 4.—Bazoaz Aralar'a
Aingeru Santua,
Zerua Iristeko
Man iguzu eskua.

II.—*San Migel'en Kanta Zar Bat*

San Migel'en kanta zar au, Etxarri Aranaz'ko jose Maiza'ri artua diogu. Euskal jator ta kristau zintzo onek Urbasa'ko magalean dagoen Artxulo izeneko baserrian jaioa zan Josepa Auzmendi bere amari ikasia du. Nunbait Jose'n ama, noizbait San Migel'era igo zalarik bere gazte garaian, aiton bateri, abesti zar au kantari ari zala entzun omen zion. Bein entzun eta ikasita etxera itzuli. Erriaren kultura orain arte askotan ala izan da. Kanta au ez-ezaguna degu, euskal kutsu aundikoa, gure kultura ezagutzeko bearrezkoa, baita ere San Migel'en kondaira errian nola bizi zan jakiteko bidezkoa. Arritzekoa da, nola R. M. Azkuek eta Aita Donosti'k etzuten bildu onen antzekorik. Aralar'ko San Migel'eri buruz, ezagutzen ditugun guztietatik zarrenetakoa auxe izango da noski.



Na - pa - rro - a' ko e - rri U -



ar - te A - ra - kill' en, San Mi - gel' a joa -



te - ko a - lle - ga - tu gi - ñen; pro -



me - sa e - gi - te - ko de - se - o aun - di -



en, men - di - ra i - go ga - be ez



nu - en ja - ki - ñen Ain - ge - ru - a zei - ñen



e - der ze - go - an ka - pi - llen.

I

Naparroako erri Uarte Arakillen
San Migel'a joateko allegatu giñen
Promesa egiteko deseo aundien
Mendira igo gabe ez nuen jakiñen
Aingerue zeñen eder zegoan Kapillen.

II

San Migel goien goien Aralar mendien
ezpata altxaturik gure guardien
kantatu nai nioke umore aundien
Berak lagunduko dit oraingo aldien
Beti izaten gera gu aren premien.

III

Eskatu bear degu Jaunari grazia
ondo explikatzeke kanta onen asia
berak ikera dauka inperno guzia
Aingeruan mendean ango nausia
oinpean sarturikan ondo itxusia.

IV

Aingeruak artzean eskuan ezpata
Etsai gaiztuarentzat asmo okerra da
Laister eman zioten gaixtoaren planta
Oinpean sartu gabe nai zuan eskapa
geiago egin aurren pagatutzen ezta.

V

Aingeruak artzean Zeruko abisua
laister botatzen ditu aideko egoak
baita korritu ere bideko leguak
manifestuan daude aren milagroak
baita kapillan ere bertan igaroa.

VI

Aingerua jetxi zan gugatik mundura
Eskola emateko Jaunaren modura
Saiatu ikastera ordutik ordura
maisua ona daukagu joateko zerura
geiago salbatzeko onera eldu da.

VII

Orain formam bear degu laster Erromara
Penitentzia ekarri bertatik onera
Konfesio on banarekin ori txit ona da
Gure defensora Jauna ori bera da
Salbatu biar degu inola al ba da.

VIII

Eliza eder onetan bear degu bizi
ez degula joan bear emendik igesi
pribilegio asko ark dim merezi
Aingeru guztietan Bera da nagusi.
Zeruako bidea berari ikasi.

IX

Zeruan ba dirade milloinka aingeru
Danak an dabilta Jaunaren inguru
Prinzipala dalarik ba du zenbat gradu
San Migel Aingerua guztietan buru
biotzetik eskatu anparamko du.

X

Naparroko erreinu aundi ta noblea.
Aingeruak or dauka Kapillen gordea
asko estimatzen du mendiko lorea
ez det errex topatzen Sanm bat obea
Guztiontzat ona da naiz izan pobrea.

III—*Aita Donostiak Bildutakoak*

Euskalerriko loretan ederrenetakoa Aita Donostia degu. Bere bizi garaian, erlearen antzera, gure edertasun guztien mami goxoa xurpatzen ibilli zitzaigun. Bere lanak, betiko, erriari eskeñitako oparirik garbienetakoa bezela dauzkagu.

Ainbeste kanta zar bildu zituan gizon ospetsu onek, San Migel'eri buruz ere lan ederra egin zuan. Bi ederrenetakoekin lan bat egiñaz, opari bezela, Julio Urkijori 1949 garren urtean, Euskalerriko adiskide elkarteak egindako omenaldian eskeñi zion.

Bi kanta errikoi zar oiek, San Migel'en irudiaren lapurketaz mintzatzen zaizkigu. Dakigun bezela, askotan alegindu dira San Migel'en irudia lapurtzera. Esaten diguten bezela, lan txar oietan 1620 eta 1689 garren urtetan ibilli ziran. Baiñan lapurketarik txarrena 1797 urtean, maiatzaren amaikan egiña da. Frantzitik etorri ziran gizon gaixto aiek, danetara bost, baita ostu ta eraman ere. Arrapatu zituzten ta San Migel'en irudia orbel tartean arkitu. Oietatik iru Iruña'n urkatu zituzten, bestea il zan ta azkena gaztetxo zalako espetxean gorde zuten. Erriak ezin aztu orrelako gertakizunak, kanta zarren bitartez gogoratu bear.

Lenengo kanta, 1912 urtean Errazu'ko Andres Jaimerena'ren ezpañetik bildu zuan Aita Donostik.



San Mi-ge-len kan - tu - a kan -



ta-tze-ra nu - a, A - di-tu nai du -



e-nik ni - or ba-lin ba - da. Be -



rri txa-rrak da - bil-tza mun - du-an ba-rre -



na, No - ti-zio-so ge - ye-nak i -



za-nen al-ga - ra Ain - ge-ru - a la -



pu-rrak e - ra - ma-na de - la.

I

San Migelen bertsoak nua kantatzera,
Aditu nai duenik iñor balin bada.
Berri txarrak dabilte munduan barrena,
Notizioso geyenak izanen al gara
Aingerua lapurrak eremana dela.

II

San Migela yuan eta ladronaren biotza (ítzak?)
"Atariok edekitzen etziaudek errezak,
Burniak kitu eta ez agiz beratzak".
Batek ez erran biar : "langai ori utzak

III

San Migela yuan eta ladronaren pregunta:
Ogiakin arnua eskatu omen dute,
Orduko eginik zauden elkarrekin yunta,
"Orai para detxagun eskuetan lotuta,
Guazin Frantziara San Migel artuta".

IV

San Migelen lenengo eldu zitzaiona
Bakarrik balabilke ura zer piona (peona?)
Etorri lakío ke egunen bat ona,
Akziyua egina damuko zayona.
Projimuari Jauna usatzen zayona.

V

Iruetan egun gizon geyeguak gañetik
Billa atera dira Larraungo bailetik,
Borondate onian guziok gogotik
Or ibilli girade mendi oyetatik,
San Migel Aingerua zure ondoretik.

VI

Iruñeko korteko Alkate Rodriguez,
Barka bezare, baño bertzu au adi bez,
Bera portatu zaigu aditu dugunez,
Frantziara yuan da San Migelen galdez,
Aingeru ederrena opatu al balez.

VII

Rodriguez Alkatiak San Migel opatu,
Eelauniko yarririk bertan adoratu,
Berak gaitxala bada ongi faboratu;
Bizi modu bat ona mundura logratu,
Azkenian zeruetako gloriaz pagatu.

VIII

Frantzian mugako paraje batian,
San Migel opa tugu arrian ertian,
Arrepatu dugunian konsola gaitzian.

IX

Santura yuan zen yende guzia,
Sokarekin loturik lapurrentzia.
Nonbait ageri dituk zuen maliziak
Progatzeraz geroztik zer den merezia,
San Migelgo muñuan kentzeko bizia.

X

Azkeneko bertsoa eskatzen Migeli,
Bitertekuan gerta dakigulaik guri,
Biar ezten itzen bat on batzait neri,
Eztakiten bezala aplitzen (aplikatzen) ongi,
Barkatu, Aingerua, bakarrik neri.



Gai oneri buruz, baiñan doña ta itzak aldatzen dirala, Aita Donosti'k beste kanta zar au, Beruete'ko (Basaburua) Sabina Oiartzun'eri artu zion. Emakume onek, bere amona Juana Mari'ri ikasia zuan. Itzak berríz, erri ontako Nikolas Buldain erretora jaunak jasoak daude.

^ J , U * W * J > J M) | , J _ J ^ 1

San Mi - ge - la yu - an ta le •

^ m m e J H J ^ f J M I

nen-go pre-gun - te: O - gi - a ta ar-

^ T J) J) I J j > J) J ' 1 J y J'

du- a es r ka-tzen di-gu - te. O-

ft ^{J, J} p F' P T F I F p ^ P

ri - ek e-dan e - ta e - gindu-te jun-

k-f-y- P' P P H S

te. O- rain pa - ra di - tza-gun

j M p c \ J, J, r £ ^ q

ka-kín lo-tu - te. Gu - a - zen Fran-¿zi-

5 n > M J > i J ^ í

e - ra San Mi-gel os - tu - te.

ARALARKO MIGEL SANTUAREN BERSUAK

I

San Migelen bersoak—kantatzera;
Aditu nai duenik—iñor baldin bada;
Berri txarrak dabilta —mundutik barrena,
Notezioso nasiak—geienak al dira
Aingerua lapurrak—eramana dala.

II

Maiatzeko ilaren—amaikagarrena
San Migelen lapurrak—sarti ziradena;
Bai ta ere arrobotu—berak nai zutena;
Azkeneko Erlikide —aingeruarena
Orrek ematen digu—biotzean pena.

III

San Migela joan da—lenengo pregunta:
Ogi ta ardoa—eskatu digute,
Oriek egan (edan) eta—egin dute junte;
"Orain para ditzagun—sokakin lotute,
Goazen Frantziera—San Migel artu-te".

IV

San Migeli lenengo—eldu zitzaiona
Bakarrik balebilke—ure zer peona;
Etorri lioke—egun bat ona,
Azio ori egiña—damuko zaiona,
Projimo lege jaunaz—usa dezaiona.

V

Projimoak bezela—esanen diet nik
Zer modutan libratu—trantze orretatik;
Deskuidorikan gabe—mundu onetatik
Eska zaiok Migeli—biotzez gogotik
Berak barkazioa—alkantzuko dik.

VI

Aditu nuenian—ostu dute San Migel
Nere lagunei itz bat—bela esan nien:
"Naiz dala Frantzian ta—igual Españian
Baldin bada ere—leku estalian
Begira milagroren bat—gerta ez darien".

VII

Iru egunen bat gizon—geigoak gañetik
Mile atera dira—Larrungo balletik;
Borondate aundian—ni beintzat gogotik,
Or ibili gerade—mendi oietatik
Migel, zure deiada—orain montañetik.

VIII

Endemas Imoz Larraun—gero Saganetik
Zeren falta bai zaigu—guzion erditik
Gu amparatuzeko—paraje aunditik
Nork guardatuko gaitu—Aralar menditik.

IX

Ez balirade sartu—San Migelgo kapillen
Jendeak orrenbiste—ez zuen jakiñen;
Ez dakit ziertorik—kanpoan dabillen
Ladron gaiztoen lanak—ara nola diren.

IXbis

Ez balirade sarm—San Migelgo kapillen
Jendeak orrenbeste—ez zuen jakiñen;
Ez dakit ziertorik—kanpoan dabillen
Aralarko mendien—dago an kapillen,
Espiritu purua—beñ é (ere) ezta illen.

X

Zure templo sanma—Aralar mendian
Lutoz janzirik dago—tristeza aundian;
Ez da konsolorik—oraingo aldian
Ez bazaigu itzultzen—curegana Migel. (guregana).

XI

Nora zoaz Migel—Aingeru ederra?
Pena aundiz beterik—gu arkitzen gera;
Ez tirudi montañek—lenengoa dela,
Adizazu, Migel—emengo negarra
Zu ez pa zera izultzen—gu galduak gera.

XII

Nora zoaz, Migel—Aingeru Santua,
Zeruetan zerok—asentama;
Denboraz emanen ditik—ark bere konmek;
Migelek pisatuko ditik—bere pekamak,
Lana egongo duk an—ezin ukatua.

XIII

San Migel Aingerua—Goizuetan bizita,
Naparroan gelditu da—zerutik jetxi da;

Konsolatu egiten naiz—esaten asi ta
Bere plan ederrakua—ala ikusi ta,
Eldu zela usten nuen—zeruko musika.

XIV

San Migel Aingerua—burua berriturik
Nor ez da espantatzen—ori aditurik
Aingerua izanik—ain fideletatik
Zerutik jetxi zana—mundura deiturik,
Emen darabilgu—despreziaturik.

XV

Iruñeko Korteko—Alkate Rodriguez,
Barka dezaiek baño—berso au ai (adi) bez.
Berori portatu da—aditu dedanez,
Franzira joan eta—San Migelen aldez
Aingeru eder ori—bilatu al bez.

XVI

Franzira joan eta—San Migel upatu,
Belaniko jarririk—bertan adoratu;
Berak gaitzala bada—arren amparatu
Bizi modu onen bat—mundurako logratu,
Ta sero zeruetako—gloriaz gozatu.

Gai oneri buruz, ba du bere abesti liburu
berexian, 281 zenbakian Arraiotz'en bildutako
kanta labur bat, estrofa bakarrekoa.'

Agosto illaren ogeita bigarna
Lapurrak San Migel'en sartu zira dana
Bai etare arruatu bere bai zutena
usterik ilegiyua aingeruarena
arek emaiten ba daut biotzian pena.

Gaiñera Lekunberri'ko Aita Modesto'k onen
antzeko beste kanta zar motxa eman zion Aita Do-
nosti'ri.

Mayatzeko illaren amaika garrena
Lapurrak San Migel'en sartu ziradena
baita lapurtu ere berak nai zuena
azkenik erlekiek San Migelarena
arrek ematen digu biotzian pena.

Jose Manuel Auzmendi Bakaiku'ar jatorrak,
emandako kantu onen beste aldaketa bat, argitara-
tu zuan Don Inozenziok, Aralar'ko San Migel'go
apaizak, Artxueta'ko Unaya izenarekin, Principe de
Viana euskal aldizkarian, 1970 urtean, 49 zen-
bakian.

Lapurren gaiakin ezertxorez ikusi bear ez
duan beste kanta motxa bildu zuan Aita Donostik,
bere adiskide Lekunberriko Aita Modestok emana.

San Mi - ge - len sar - tu ta le -

f' J j ^ J u - p i p p p ^

nen-go pre-gun - te zer - bait a - li-men-

y r P p i ^ T " ^ ^ i ^

tu - e e - man nai ba-du - te, a -

j t i W - i i l | i p ^ ^

li-men-tu ar - tu ta a - te-ra kan-po-

j ^b i r P i P P - N ^{! J J} í

ra, pen - sa-men - tu txa - rra - kin ba -

j ^ p t ' p i r p p K J ^ p

rru-ra a-tze- ra bes-te as-ko gau-za-

f ' i r p p i p p J > J H J * I I

re-kin San Mi-gel os-te- - ra.

Aita Donostiak berak egiña izan bear du, oso kanta polit bat, aspaldi Zeruko Argian argitaratua ta 1915 urteko Argi Donea eliza kantu liburuan dagona, 697 garren orنالdean.

Batzuek

ĭ, ĭ, J) Ji J' jĭ ^

O Ain-ge- ru biz-ko - fé - na,

***lj* ^1 eh J I ffflf H ^**

Mi - gel Deu-na, Bi-zi-tzan gu-ri be-gi-ra.

u *Eriák*

ff J1 » 0 d J) * J) JI - i

Gu -re bu-fu -kan O - toitz e - gi - zu,

S=S

Mi - gel Deu-na. A la xe.

2

Jaunak nai zaitu Lenengo,
Migel Deuna,
Bere semeak zaitzeko;
Gure burrukan
Otoiz egizu
Migel Deuna.

3

Andre Mariaz zuk dezu,
Migel Deuna,
Kopeta lenik agertu;
Gure burrukan
Otoitz egizu
Miguel Deuna.

4

Betiko Deabru ori,
Migel Deuna
Zapaldu dezu gogorki;
Gure burrukan
Otoiz egizu
Migel Deuna.

5

O gure Buruzagia,
Migel Deuna,
Ziñez zaitu Eliz Ama;
Gure burrukan
Otoitz egizu
Migel Deuna.

6

Aingeru zintzo ta azkarra,
Migel Deuna,
Begira iguzu maiteki;
Gure burrukan
Otoitz egizu
Migel Deuna.

7

Zaitu gaitzazu gau t'egun,
Migel Deuna,
Euskaldunen Zaitzalea;
Gure burrukan
Otoitz egizu
Migel Deuna.

IV.—*Eraskiña*

Arritzekoa da, R. M. Azkuek, Aralar'ko San Migel'eri buruz, kanmrik ez biltzea. Ba dauka bat, bere euskal kanta zarren liburu berexian, Amorebietan arma, 794 zenbakían, baiñan Aralar'ko Aingeruarekin ez dauka zer ikusirik.

Aralar'ko San Migel gaur

Aralar'ko San Migel'en gain ortan aldaketa aundiak ditugu. Len, igotzeko, oñez ibilli bear. Orain berriz, bizpairu urte dirala errege bide ederra degu Lekunberri'tik. Gaur oso errex igo leike. Len elurte aundiekin ezin ibilli ta San Migel'etik ezin atera. Orain berriz ba dabiltz berebil berexiak elurra menderatzen dutenak. Len arrotzarik etzan urbiltzen ere, gaur berriz elur asko danean, orduan ta jende ugariago, batez ere igandetan. Bide berriak, Aralar'ko bazter ontan gauza asko aldatu du.

San Migel'en eliza bera, bitxi bat bezin lirañ jarri dute, barrendik eta kanpotik aldatuta. Len kanpotik borda berexi aundi baten antza zeukan, gaur txapela jarri diote. Barrengo aldare nagusi aundia kendu diote eta abar. San Migel'ko eliza ez da lengo gauza bera. Naparra'ko "Principe de Viana"ren saillak, bere gain artu du bear bezela dana berritzeko ta utsuneak zuzentzeko. Lan guzti oien zuzendari bezela, Iñigez izen aundiko irakasle jauna izendatu dute ta gizon ospetsu onek, gure eliza zarra maite mindu batek bezela berritu digu. Zinkezko tellatua kenduta arrilosakoa jarri dio ta

Elizaren buru gainean zinborrio bat altxa du buz-tinerekin egiña. Nunbait elizaren erdiko abe na-gusiak, orren antzeko zerbait eusteko egiñak zeu-dela, dio gure artilarri zuzendariak. Zinborrion bat izango zula len, edo ori altxatzekotan egin gabe geldituko zala, bitik bat uste dute.

Eliza barrenean berriz, erretaula aundia baz-tertu dute ta esmalteko aldarea kristal berexi ba-teko kutxan sartua daukate ta orrela bakarrik da-go, besterik gabe- Elizaren barreneko ormak arri-gorritan utzi dituzte. Elizaren buru aldeko orme-tan, leio batzuek itxutuak aspeditik zeuden. Orain garbitu ondorean leiariak ipiñi dizkiete, argia len bezela sar dedin. Eliza aurreko orma ortan arriga-rrizko gauzak agertu dira. Iñigez'ek utzi egin ditu, billatu zituan bezela; ormaren oñarriak larrugo-rritan, ikuitu gabe, nola egiñak dauden danak ikusi dezaten. Lurraren ondoan, lenengo etxegintzaren marra dago, aldare erdiaren bitarteraño dijoana, zokotsu poligonal gisakoa. Orrelako teknika bede-ratzi amargarren gizaldian erabiltzen zuten, Ka-rolingio izenekoa. Bigarren etxegintza oberdi an-tzekoa da ta irugarrena erromaniko garaikoa; an dauden leioak mozarabe kutsua daukatela, eta amaikagarren gizaldikoak dirala diote. Len estalita zeuden xetasun oiek orain agirian gelditu dira, ba-tez ere jakintsuak beren iritzia agertu dezaten.

San Migel'en irudia aldatu dute bere burni sareko aldatek eta orain aldare nagusiko ezker al-dean apaltxo batean ipiñi dute ta igandetan erdira ateratzen diete kristauei.

Elizak zeukan sarrera illuna ta goiko bizitokia botatzekotan dabiltz. Orrela elizaren sarrerako ate erromanikoa bere edertasun utsean gelditzen zaigu. Ataria bera, garbi ta argiago dago ardangelaren kutsurik gabe.

Len erretako ostatua zan tokian, altxa dute etxe galanta, arrizkoa, zillarraren antzeko margozkoa, sendoa ta zabala. Luzea bainan ederra egin dute, oso gauza bikaiña. Sarrera lasaia du, dena leioz betea. Zia etxegille jaunak egin du. Sarreran aterpe eder bat jarri diote, gero egon gela dator ta azkenean jan gela aundi bat. Igota, goian, lo gelak daude 70 lagunentzat. Pakean, otoiitzean egun zoragarri batzuek igarotzeko, ba dago orain aukera ederra.


Gaurko berritze onek esan nai du, Aralar'ko San Migel ez dala nolanaiko tokia, euskaldunentzat. Ba ditu bere esaera zarrak, baita edertasuna ere, kondaira, ederti lanak, sinismenaren iturria, otoiitz lekua, aberri oñarria. Aberastasun aundiak ditugu mendi ontan. Toki orrek ba dauka zer ikusi aundia Euskal kukurarekin. Bere aberastasun aundietakoak agertzen, gure ustez, saiatu gera.

Aztu ezin deguna da, San Migel elizaren kondaira berexia, bere esan nai guztiarekin eta Aralar mendia, bat azaltzen zaizkigula. Batek bestearen nortasuna asko indartzen du. Bata bestetik ezin dezakegu erdibitu. San Migel aberatsa ba da bere edestian, Aralar'en arkitzen degun edertasuna ez da nolanaikoa, oso ederra baizik.

Aitortu bearra degu, edertasun ta aberastasun oiek, erriarenak, Euskal erriarenak dirala. Danak

jabetasun orrekin ba degu zer ikusi aundia; guretzat egiñak eta gureak diralako, bainan ez nai deguna egiteko. Artu ditugu, bainan ederragoak atzekoei, geroari uzteko dauzkagu. Gure erriko ta izadiko toki eder ta berexi ori zaindu bear genuke norberaren lorategia izango ba litz bezela.

Ortara nator; Aralar'ko San Migel'en arkitzen degu giro zoragarria. Ura aspalditik ezagutu genuen eta gure bete bearra da, ondorengoei gauza berdiña luzatzea. Galbide aundietan sar gaitezke, gaurko tresna berriak nolanai erabilli ezkeru. Ezagutu degun giro berezi ori babesteko oñarri



sendoak jarri bearrak daude. Zerbait aurreratu dezakegun guztiok, zaintzen alegindu bear giñake.

Nere aldetik arrazoiak eskeini nai ditut. San Migel' en elizak dun goi arnasa ta iturri berexian daukan sena, ta garai berean, or dagon euskal usaia zaindu egin bear ditugu. Damu lekua ta euskal kulturaren iturria izan bear luke San Migel'ek-

Damu sillu ori obeto arkitzearren, uste dut onena izango litzakela, berebil guztientzat San Migel mendian ta Artxueta tartean dagoen lepoan, geldi tokia jartzea, danak azkeneko bidea oñez egin dezaten. Goraño berebillean joatea errexkerira *jok*atzea da. Jakiña gaxo ta elbarrituentzat zerbait pensatu bearra dago.

Eliza inguruan dagoen zelaian, debekatua izan bear luke, jan, edan, erdi larrugorritan egotea ta eresi tresna guztiak erabiltzea. Goiko zelaiak garbitasunaren kutsua bear luke.

San Migel'en irudiarentzat, ezarri lekua aldare nagusi aurrean ikusi nai genuke ta ez bazter batean; aurrez aurre, ondo ikusten dala.

Eliza ondoan dagoen arrotz etxe berriari, uste dut, giro berexi bat eman bear litzaiokela; ez dedilla izan, lasai nai dena jan ta edateko. Orrekin esan nai degu ez dezaiotela jendeari lasaitzeko bidea eman; izan dedilla dana ondo neurritua. Ez litzake gaizki izango menu sendoa, mendikoa, darentzat berdiña jartzea. Edari biziak ere neurrituak izatea. Orrela, tokiaren berexitasuna, danak nabaitu ta jakin dezaten.

Elizara iritxi aurretik arrizko iragarki bat jar-

tzea bearrezko deritzait, bertan, euskeraz eta itz guzxitan, San Migel'en esan-nai osoa azalduaz.

Beste gauza bat errex egin lezaikena da, San Migel eliza barrenean dagoen elizatxo atera osorik eta Trintate elizatxoaren toki berean oraingoaren ordeztu ipiñi. Barrenean ostopoa ta enbasoa egi ten du, zelai artan berriz obeto ikusiko genuke.

Len aipatu degun bezela, ezin dezakegu San Migel Aralar'tik erdibitu. San Migel ederra zaindu bearra ba degu, Aralar zoragarria ere babestu bearra dago. Batari lagundu ezker, bestea ezin nolainai utzi.

Ikaragarriko galbideak urbiltzen zaizkio Aralar mendiari; motor tresnak nunai, botreak, pape rak, zikinkeri ta kristal puskak baztarretan edo basopetan. Aralar zaintzea merezi du, ondatzeko *egina* ez dalako ta zerbait danori ematen digulako. Daukan aberastasuna ez da xautzeko, gizonaren onerako baizik. Orduan, aurreratzeko bideak billatu bear dizkiogu.

Aralar mendiak daukan aberastasuna, ugaria ta mamitsua da. Lendabizi basoak, ondo beteak, pago luzeak alkarri eskua ematen ari ba litz bezela. Pagadi ikusgarriak; zillarrezko enborrak, arriak ain orlegi ta zerua urdina. Aralar'ko lañoa ere garbia, zuria degu; orbela gorria, arri tartean eratu. Larre tokiak zabalak eta garbiak. Ardi eskilaren doñu ezti. Labaien'ek dion bezela, 1927 urteko Argia egutegian, "Artzai txistuen otsak".

Aralar'en beste ludi batean gaude. Bere izenak dion bezela ARA-LAR, larreko lurra, artzaien

iria. Ez gaurkoa bakarrik, orain dala millaka urte antxe bizi dana Aintzina garaiko ezaugarriak nuna ditugu. Orduko bizia ezagutzeko iturri aberatsa ementxe dago. Ementxe bai, triku arriak ugari (Dolmen). Arkaitz gorriko mutur zorrotzak, era guztietako iturriak, basoak ugari, larre toki zabalak, ur putzuak, artzai, ori dana Euskalerrri erdian, Euskalerrriko biotzean.

Edertasun aundiegia nolana ta zernai egiten ibiltzeko; batzuk bezala, zugaitz zarrei su ematen, triku arriak aldatzen, bazterrak zikintzen ta zarta ateratzen.

Orrelako edertasuna babestu ta zaindu bearean gaude.

Aralar mendi osoa artzantzaren toki experimentalala bear genuke egin eta izan bear luke. Ori aurrera eramateko Naparroko ta Gipuzkoako Diputazioak alkartu bear lirake. Aralar mendi osoa Txindoki ta Beloki'tik asita, Balerdi ta Artxuetaraiño, Larraitz'tik Irumugarrieta'raiño gorde mendi tokia edo "reserba" berexi bat bear luke izan, ez ondatzeko, zaintzeko baizik. Europa'n ba daude orrelako eredu ugari.

Iduritzen zait etorriko dala garaia, Baraibar'en zaindari bat jarriko dutena errege bidean, berebil guztiei txartel bat emateko idatzita oar batzuekin, danak jakin dezaten ze edertasunak billatuko dituzten Aralar mendian eta nola ibiltzen jakiteko. Bidexigorrak iriki bear lirake, ezaugarri garbiekin oñarrituak, lasai oñez ibilli ditezen. Berebillak uzteko toki berexiak bearrezkoak dira ta nolana ibiltzea galerazi bearra.

Gaiñera Aralar'ko zaindari bezela izendatu bear luteke artzai guztiak. Urtean irudizko sari

bat jarri, eta atzerriko jende guztiei bear bezela ibiltzen lagundu.

Beste lan batean azaldu nuan bezela ez litzake gaizki izango, toki ta gauza berexi guziei beren izenak ipintzea, artzaiak deitzen dieten bezela. Labaien'ek esaten duana ezin degu azm, "euskal izen pilla emen jaioak daude". Euskalerrian, ainbeste mendizalen elkarreak daudela ez litzake lana itsusia izango, oso ederra baizik.

Zergatik ez, arrotz etxe eder bat aurrerapen guztiekin egin ortarako; ez litzake gaizki etorriko guarda etxe dagoen tokia, bere igeri leku ta guztiekin. Aurrerapen oiek, goian baiño obe lirake bean jartzea.

Ementxe dauzkagu, San Migel mendia ta Aralar zaintzeko asmo ugari. Ez dut esanai danetan ala egin bear litzakenik, baina bide egoki batzuek azaltzen ditugu, guk Aralar ezagum degun bezin ederra, ondorengoak ere ikusi dezaten. Itz oiekin zerbait egin bearra dagola agertu nai genuen.

ARKIBIDEA

Orrialdea

Itzaurrea	9
Aralar'ko San Migel Euskalerriko ama sabela ...	13
Aralar'ko San Migel edestian.	15
Aralar'ko San Migel elizatxoaren asiera	26
San Migel'en irudia ta Euskalerra zarra.	33
Aralar'ko San Migel'en udaberriko ibilleldia	39
Orixe ta Aralar'ko San Migel	45
San Migel'en kanta zarrak	56
Aralar'ko San Migel gaur.	80

